

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

62/2026 Mozioa, ekainaren 19koa, Julián de Zuluetak utzitako herentziatik datorren Arabako Arte Ederren Museoaren sarreran plaka oroigarri bat jartzeko, Arabako herriaren oroimenean esklaboen merkataritzaren tragedia aitortzen laguntzeko

Arabako Batzar Nagusi hauetako Kultura eta Kirol Batzordeak, 2026ko ekainaren 19an egin-dako bileran, mozio hau onetsi zuen:

62/2026 Mozioa, ekainaren 19koa, Julián de Zuluetak utzitako herentziatik datorren Arabako Arte Ederren Museoaren sarreran plaka oroigarri bat jartzeko, Arabako herriaren oroimenean esklaboen merkataritzaren tragedia aitortzen laguntzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Arabako Memoria Historikoa transmititu eta Augustin Zulueta jauregiaren jatorriari buruzko egia jakite aldera, plaka oroigarri bat jar dezala haren sarbidean, honako hauek zehaztuta: "Museo hau Julián de Zulueta herentziatik dator. Zuluetak bere dirutza Afrikako pertsonen salerosketaren bidez eta Kuban esklaboak ustiatzearen bidez batu zuen. Gizateriaren aurkako krimen horren biktimak oroitzeko plaka."

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote plaka oroigarri hori jar dezala 2026ko abuztuaren 23an, data horretan ospatzen baita Esklaboen Salerosketa Gogoratzeko eta Ezabatze Nazioarteko Eguna. Horren helburua da esklaboen merkataritzaren tragedia Arabako herriaren oroimenean txertatzen laguntzea.

3. Arabako Batzar Nagusiek Kultura eta Kirol Sailari eskatzen diote ezen, egin beharreko ikerketa-lana egin ondoren, eta aurtengo urtea bukatu aurretik, sortu zenetik gaurdaino Arte Ederren Museoko eraikinak izan duen historiari buruzko argitalpen bat editatu dezala.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 19a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA